

1. Idazlariak zer dio Españolez.
2. Odola beroa duela Espāñolek.
3. Emaguz odol beroa horren behar du bat

II

ZERK EGIN DU ESPAINIA? 3

Arrotzekin bezala, elgarren artean bardin dire. Den gutieneko ez-bai bat aski dute, berehala *al kutchilo* joateko. Iduri dute ez dakitela borrokatzen elgar *sangratu* gabe. *Sangre!* Odolaren eta odol ixurtzearen izen hori bera espāñola da. Emozute odol...

Eta zerk emaiten othe diote jaidura tzar<sup>25</sup> hori? Odolaren ixurtzeko gutizia higuigarri hori, gizonen hiltzeko erretasun itsusi hori nondik othe dukete beraz espāñolek? —Ez beren baitharik. Ezen erran dugun bezala espāñolak berenaz bihotz ona du. Bada hor bertze zer bait. —Zer othe? Anhitzen arabera eta ene ustez ere zezen-guduetarik dathor aztura saibai<sup>26</sup> hori.

Alabainan<sup>27</sup> ardurenik begien aitzinean ikhusten duen hartara da tirriatzen<sup>28</sup> gizona. Haurrez errana da: zer ikhus, hura ikhas. Arren<sup>29</sup> halaber dezakezu erran gutarik bat bederaz. Edozoin adinetan haur handi batzu gira oro, edo bederen gutiz gehienak. Ikhusten dugun hartaz gutiziatzen<sup>30</sup> gira, bereziki gure jaidurak azkarki<sup>31</sup> phitz arazten dituen hartaz; zernahi izan dadin, jan-hari, edari ala ikhusgarri. Hala nola gizon edalea ez dagoke arno<sup>32</sup> edo bertze zerbeit edariren izena dakharren zerbeiti lothu gabe. Azkarrago eta nahiago du.

Alta<sup>33</sup> jan edanetakoa baino garhait gaitzagoa da begiz husteko jaidura. Tripa bethe duenean gelditzen da edatetik gizon hordia<sup>34</sup>.

Bainan begiak ez dire tripa edanez bezala bethetzen ikhusiz. Hortakotz<sup>35</sup> ere ez othe da errana: tripa baino goseago direla zenbeiten begiak? Nik uste nuke oroena ere hala direla.

Eta orai huna zertara doan nere solasa: balin bada ikhusgarri dorpherik<sup>36</sup>, gizonaren begiak eta zainak<sup>37</sup> phitzen dituenik, haren odola erakit-arazten duenik, hura da gizon eta zezen hil edo bizi horrokan ikhuste hori. Batek edo bertzeak behar dute han leher egin. Eta zezenaren orde gizona hil daitekela beldur hori bera zaiote atsegin bat ikhuslei.

\* Emakoze = Emoze = donnez-le lui  
Emakozute = Emozute\* = donnez-le leur

III ADITZ [KASKUNTZA]

- |            |               |
|------------|---------------|
| 31. Dukete | 32. Dezakezue |
| 33. Dagoke | 34. Uste nuke |

31. UKAN. Potentiel probable

<u>Present</u>	<u>Imparfait</u>
Nik duket = je peux l'avoir	Nukeen = je pouvais l'avoir
Hik dukek/n = tu peux l'avoir	Hukeen = tu pouvais l'avoir
Zuk dukezu = vs pouvez - " -	Zinkeen = vs pouviez l'avoir
Harek duke = il peut - " -	Zukeen =
Guk dukegu = vs pouvons - " -	Zinkeen =
Zuek dukezu = vs pouvez - " -	Zinketen =
Heiek dukete = ils peuvent - " -	Zuketen = etc.

32. UKAN - Potentiel - Present - O. Sing.

Nik ukan dezaket = je peux l'avoir	
Hik ukan dezakek/n = tu peux l'avoir	
Zuk - " - dezakezu = vs pouvez l'avoir	
Harek - " - dezake = il peut l'avoir	
Guk - " - dezakegu =	}
Zuek - " - dezakezu =	
Heiek - " - dezakete =	

33. EGON. Potentiel present

Ni magoke	= je peux rester
Hi magoke	= tu peux rester
Zu magoke (zagozke)	= vous pouvez rester
Hura dagoke	= il peut rester
Gu magoke (gagozke)	= nous pouvons rester
Zuek magokete (zagozhete)	= vous pouvez rester
Heiek magokete (dagozke)	= ils peuvent rester

● formes usuelles & radicaux